



## 2014ko San Pedro Jaietako kartelen lehiaketarako oinarriak

- 1.** Kartel bakarra hautatuko da Lasarte-Oriako San Pedro jaiak iragartzeko.
- 2.** Nahi duen edonork parte hartu ahalko du. Pertsona bakoitzak egoki deritzon adina proposamen aurkeztu ahalko ditu. Proposamenak jatorrizkoak izango dira, eta beste ezein lehiaketatan saritu gabeak.
- 3.** Baldin eta kartel guztia edo haren zati bat osatzen duten irudien jabetza intelectuala egilearen esku ez badago, kartela ezingo da aurkeztu.
- 4.** Kartel guztiak goiburu hau eraman behar dute inprimatua: "San Pedro Jaiak Lasarte-Oria 2014".
- 5.** Kartela lantzeko teknika erabat librea da.
- 6.** Kartelak formatu digitalean nahiz formatu fisikoan aurkeztu ahalko dira, eta izenburu batekin identifikatu beharko dira. Kartelak ez dira egilearen izenarekin identifikatuak egongo.
  - a.** Kartela formatu digitalean aurkezten bida, ezaugarri hauek bete beharko ditu: JPG formatua, 50x70 cm-ko tamaina eta 300 pixel hazbeteko. Artxiboaren izena obraren izenburutzat joko da. Lanak posta elektronikoz bidaliko dira, helbide honetara:  
[sanpedrojaiak@lasarteoriasarean.eu](mailto:sanpedrojaiak@lasarteoriasarean.eu)  
Mezuan atxikita testuzko dokumentu bat bidaliko da, egilearen datu pertsonalak eta kontaktukoak dauzkana.
  - b.** Kartela formatu fisikoan aurkezten bida, kartelak 50x70 cm-ko tamaina izan beharko du. Lanak Gazteen Informaziorako Bulegoan aurkeztuko dira (Gazteleku), asteartetik ostiralera, 12.00etatik 21:30etara eta larunbatetan 10.00etatik 14.00etara eta 16.30etatik

## Bases del concurso de carteles San Pedro Jaiak 2014

1. Se seleccionará un único cartel anunciador de las fiestas patronales de San Pedro de Lasarte-Oria.
2. Podrán participar todas aquellas personas que lo deseen. Cada persona podrá presentar tantas propuestas como crea oportuno. Las propuestas serán originales y no premiadas en ningún otro concurso.
3. No se podrán presentar carteles que en parte o en su totalidad estén constituidos por imágenes cuya propiedad intelectual no esté en manos del autor o autora.
4. Todos los carteles deben llevar impreso el lema: "San Pedro Jaiak Lasarte-Oria 2014".
5. La técnica de trabajo es completamente libre.
6. Los carteles podrán presentarse bien en formato digital, bien en formato físico, y deberán identificarse con un título. Los carteles no irán identificados con el nombre del autor o autora.
  - a.** Cuando la presentación se realice en formato digital, deberá ser ateniéndose a las siguientes características: formato JPG, tamaño 50x70 cm y 300 pixeles por pulgada. Se entenderá que el nombre del archivo es el título de la obra. Los trabajos se enviarán por correo electrónico a la dirección [sanpedrojaiak@lasarteoriasarean.eu](mailto:sanpedrojaiak@lasarteoriasarean.eu). En el mensaje se adjuntará un documento de texto con los datos personales y de contacto del autor o autora.
  - b.** Cuando la presentación se realice en formato físico, el cartel deberá tener un tamaño de 50x70 cm. Los trabajos se presentarán en la Oficina de Información Juvenil (Gazteleku), de martes a viernes en horario de 12:00 a 21:30 h. y los sábados de 10:00 a 14:00

20.00etara. Kartelaren izenburuak haren atzealdean egon beharko du idatzia. Kartelari gutun-azal itxi bat atxikiko zaio, egilearen datu pertsonalak eta kontaktukoak dauzkana.

- 7.** Proposamenak aurkezteko epea 2014ko martxoaren 3an hasiko da eta urte bereko maiatzaren 5ean amaituko da.
- 8.** Lehiaketara aurkeztutako kartel guztiak [www.lasarteoriasarean.eu](http://www.lasarteoriasarean.eu) webgunean ikusgai jarriko dira, sinadurarik gabe eta izenburuaren bidez identifikatuak. Webgunean erakusteko, egileek espresuki baimena ematen dute lehiaketara honetara aurkeztearekin.
- 9.** Herritarrek ikusgai jarriko diren kartelei buruz duten iritzia adierazi ahalko dute, eta iritzi hori aintzat hartuko da cartel irabazlea hautatzerakoan.
- 10.** Kartel irabazlea Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria, Festak eta Kirolak Batzordeak aukeratuko du, eta haren erabakia apelaezina izango da.
- 11.** Irabazleak sari bakarra jasoko du, 600 eurokoa.
- 12.** Kartel irabazlearen egileak Lasarte-Oriako Udalari cartel hori egoki deritzen modu eta medio guztien bidez eta nahi adina aldiz erreproduzitzeko eskubidea emango dio. Modu berean, Lasarte-Oriako udalak ere bere gain hartzen du egileari kartelean aldaketak egiteko eskatzeko eskubidea (dagozkion logoak gehitu, festetan joko duten taldeen izenak gehitu, etab.), betiere lanaren esentzia errespetatuaz.
- 13.** Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea.

h. y de 16.30 a 20.00 horas. El título del cartel deberá estar escrito en la parte posterior del mismo. Al cartel se adjuntará un sobre cerrado que incluirá los datos personales y de contacto del autor o autora.

- 7.** El plazo de presentación de propuestas comienza el 3 de marzo de 2014 y finaliza el 5 de mayo del mismo año.
- 8.** Todos los carteles presentados a concurso se expondrán, sin firma e identificados por su título, en el sitio web [www.lasarteoriasarean.eu](http://www.lasarteoriasarean.eu), para cuya exhibición los autores conceden su permiso expreso al presentarse a este concurso.
- 9.** La ciudadanía podrá expresar su opinión sobre los carteles expuestos, opinión que será tenida en cuenta a la hora de elegir el cartel ganador.
- 10.** El cartel ganador será elegido por la Comisión de Juventud, Festejos y Deportes del Ayuntamiento de Lasarte- Oria, cuya decisión será inapelable.
- 11.** El ganador recibirá un único premio de 600 euros.
- 12.** El autor del cartel ganador concederá al Ayuntamiento de Lasarte-Oria el derecho a reproducir dicho cartel por todos los medios y maneras que considere oportuno, así como tantas veces como deseé. Así mismo, el Ayuntamiento de Lasarte-Oria también se reserva el derecho de pedir al autor o autora del cartel que realice modificaciones en el mismo (añadir los logos necesarios, añadir los nombres de los grupos que tocarán en fiestas, etc.), siempre respetando la esencia del trabajo realizado.
- 13.** La participación en este concurso implica la aceptación de las presentes bases.